

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak, José Luis Canoren, Germán Rodríguezen, Gladys del Estalen eta Mikel Zabalzaren familia, gizarte eta erakunde memoriari buruzko azterlana aurkeztuko du datorren astean

"Oroimena josiz" jardunaldia ostegunean, urtarrilaren 10ean, egingo da, 19:00etan, Baluartean.

Ostirala, 2019.eko urtarrilak 4

Datorren ostegunean, urtarrilaren 10ean, "Oroimena josiz" jardunaldia egingo da Baluartean. Bertan, Nafarroako Gobernuak José Luis Canoren, Germán Rodríguezen, Gladys del Estalen eta Mikel Zabalzaren familia, gizarte eta erakunde memoriari buruzko azterlana aurkeztuko du.

Lana, Nafarroako Unibertsitate Publikoko "Lera lkerguna" gizarte antropologia ikerketa taldeak eraman du aurrera, eta partaideak Kepa Fernández de Larrinoa, Santiago Martínez Magdalena, Txuri Ollo Gorriti, Karlos María Irujo Asurmendi eta Cristina Saura izan dira.

Saioa arratsaldeko 19:00etan hasiko da Baluarteko Luneta aretoan, Ana Ollo Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Kontseilariaren hasierako hitzaldiarekin. Ondoren, Aingeru Epaltzak gidatuko duen mahai ingurua egingo da, eta hauek hartuko dute parte bertan: Karlos Irujo UPNAko taldeko kideak; Aingeru Cano José Luis Canoren anaiak; Rafa Aldai Gladys del Estalen adiskideak; eta Idoia Zabalza Mikel Zabalzaren arrebak. Sarrera librea izanen da toki guztiak bete arte.

Jardunaldiak, Nafarroako azken urteetako historian zergati politikoen ondorioz gertatu izan diren indarkeria kasuetako batzuk hobeto ezagutzen laguntzeaz gain, senideek memoria eraiki duten moduari buruz familiek



PAZ, CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS  
 BAKEA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK

# OROIMENA MEMORIA

GERMÁN RODRIGUEZ  
 MIKEL ZABALZA  
 GLADYS DEL ESTAL  
 JOSÉ LUIS CANO

BALUARTE

19:00 ETAN  
 MEMORIA EHOTZEN  
 ANA OLLO  
 Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Kontseilariaren hasierako hitzaldia

MAHAI INGURUA  
 KARLOS IRUJO (UPNAko taldeko kideak)  
 AINGERU CANO (José Luis Canoren anaiak)  
 RAFA ALDAI (Gladys del Estalen adiskideak)  
 IDOIA ZABALZA (Mikel Zabalzaren arrebak)

19:00 H.  
 TEJIENDO MEMORIA  
 ANA OLLO  
 Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Kontseilariaren hasierako hitzaldia

10  
 JUEVES  
 ENERO

Nafarroako  Gobierno  
 Gobernua de Navarra

Jardunaldiaren kartela.

emango duten testigantza herritarrei hurbiltzeko aukera emango du. Azterlanak, memoriaren ikuspegitik, gaur egun oraindik ere, erakundeen aldetik gertatu izandakoaren mailako erantzunik jaso ez duen Giza Eskubideen zapalkuntza jasan zuten familien aintzatespenari eta erreparazioari lagundu nahi izan dio. Horrez gain, azterlanak, idatzizko, argazkizko, ahozko eta ikus-entzunezko informazio zorrotza ere jasotzen du, eta azterturiko kasuen familia oroimen tipologia mota desberdinei, pribatuei eta publikoei, hurbilketa sozio-antropologikoa egiten zaie.